



2023UDOS0007

Andoingo Udala

Akta:Osoko Udalbatza
APARTEKO BILKURA: 2023/05/19**Acta: Pleno Municipal**
SESIÓN EXTRAORDINARIA: 19/05/2023**Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Salón de Plenos****Bildutakoak: / Asistentes:****Alkatea / La Alcaldesa** Maider Lainez Lazcoz**Zinegotziak: / Concejales/as:****EH-Bildu**
Andoni Alvarez Lete
Estibalitz Mujika Tolaretxipi
Jon Zulueta Berastegi
Garazi Usandizaga Zubiria
Julian López Aracama
M^a Teresa Etxeberria Arteun
Xabier Fondón Pajares**PSE-EE**
José Luis Verdasco Gutierrez
Ascensión Parrón Peguero
Petra Romero Pozo**EAJ-PNV**
Maria Jose Izagirre Iturzaeta
M^a Sagrario Ruiz Fernández
Imanol Goenaga Egibar**Elkarrekin Podemos** M^a Teresa Santana Rubio

Akta Zenbakia	00000007
Eguna	2023/05/19
Hasiera	14:00
Amaiera	14:30

Idazkaria:

María Uriarte Zurikaray

KontuhartzaileaMyriam Lizaso
Arruabarrena**Interpretaria**

Jon Unanue Lopez

Ez dira bertaratu eta adierazi dute: / No asisten y se excusan:Oscar Mendo González (PSE-EE), quien delega su voto en D. José Luis Verdasco Gutiérrez.
Alexander Huitzi Alfonso (EAJ/PNV).**Gai Zerrenda:**

- Bidaiarien hiri barruko garraio zerbitzua emateko plegua onartzea.
- 4/2023 zenbakiko kreditu aldaketa espediente onartzea.

Orden del Día:

- Aprobación del pliego para la concesión de servicio de transporte urbano de viajeros.
- Aprobación del expediente modificativo de crédito nº 4/2023.

Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzten da.

Alkate andreak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on guztioi eta mila esker gurekin izateagatik. Gaur 2023ko maiatzaren 19ko ezohiko udalbatzar honetara.

“Muy buenas tardes a todas y a todos, y bienvenidos al pleno extraordinario del 19 de mayo de 2023.

“Hasiera eman baino lehen komentatzea Oscar Mendo zinegotzi jauna bajan dagoela eta bere bozka José Luis Verdasco zinegotziarengan eskuordetzen duela.

“Comentar que el concejal D. Oscar Mendo está de baja y, en consecuencia, su voto lo delega en el concejal D. José Luis Verdasco.

“Hau esanda, hasiera emango diogu gaurko udal batzarrari.”



1. Bidaiarien hiri barruko garraio zerbitzua emateko plegua onartzea.

Bidaiarien hiri-garraioko zerbitzua emateko zerbitzu-emakidako kontratuaren esleipena arautuko duen administrazio-klausula berezi eta teknikoen agiria aztertu da.

Espedientea osatzen duen dokumentazioa ikusita.

Ikusirik Zerbitzuetarako Batzorde Informatzailearen 2023ko maiatzaren 8ko irizpena.

Lehendabizi, Izagirre andreak, zerbitzuetako zinegotzi delegatuak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Egun on. Batzordean komentatu zen bezala, plegu hau atera beharra daukagu 1.570.794,80 eurotako. Plegua da hiri busa kontratatzeke, eta esan behar dugu pleguetan modifikazio batzuk sartu ditugula, besteak beste, ba, gaur egun dauden ibilbideak mantenduz eta ikusiz zer aukerak zeuden, ibilbide berriak sartu ditugu plegu honetan. Eta zentzu horretatik joango litzateke ibilbide berriak izango lirateke, Extremadura eta Plazaola kalea, kaleko buelta, Olagaingo buelta ere bai, horrela Olagaindik ere pasako litzateke. Eta baita ere hilerriko buelta.

Horiek izango liratezke aldaketetako batzuk.”

Gaia eztabaidara jarri baino lehen, Alvarez jaunak, EH Bildu udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Kaixo, eguerdi on denoi. Zerbitzua hobetu, hobetu egiten da, eta horren adibide da, egunean bederatzi zerbitzutik hamazortzi egitera pasatzen dela. Guk aspalditik geneukan aldarrikapen batekin bat egiten du, ez? Nahi batekin bat egiten du, hau da, auzo gehiagotara iristen da.

“Guk, zerbitzua hobetzen denez eta auzo gehiagotara iristen denez, aldeko bozka emango diogu, baina bai nahi ditugu kezka batzuk eta ohartarazpen batzuk jarri mahai gainean, guretzako garrantzitsuak direlako. Batetik, autobusa, erosiko den autobus berria, handiagoa izango denez, badirudi zailtasunak egongo direla Olagain auzuneko goiko alderaino iristeko. Eta gure ustez hori bermatu behar dugu nola edo hala bermatu behar dugu, autobus berria handiagoa izanagatik ere, Olagain auzuneko goiko aldera iristea badagoelako. Herritar batzuek, bestela ezin dutelako, nolabait esan, herrira jaitsi.

“Bestetik, auzo berrietan geldialdiak non egin, hori ere ondo pentsatu eta aztertu behar da, ez da zehazten orain normala dan bezala, baina gauza horiek ere ondo pentsatu beharreko gauzak dira. Eta gero, etorkizunean, etorkizunera begira edo bai, hausnarketa batzuk.

“Batetik, gure ustez joan behar dugu sistema fintzen eta adibidez “Pulsadores” bezalako sistemak jartzen. Ahal den neurrian, baina nolabait esan, askotan gertatzen delako auzo batean, hori egon garenean autobusetako gidariekin eta orain prozesu honen baitan esaten ziguten, askotan buelta handia ematen da eta igual ez dago inor ez, ba Pulsadores sistemaren beharren berri izaten da eta herritarrarengana joan behar da.

“2023. urtean gaude eta ustez gauza horiek txertatzen joan behar dugu. Bestetik, etorkizun batean Mugi sartzea ere eta holako gauzak ere kontuan izan behar ditugu. Gaur-gaurkoz badakigu ez da posible edo zaila, zaila da, baina etorkizunean norabide horretan joan behar dugu.

”Eta azkenik. Orain egiten dugun galdera, hamar urtera, autobusa nolabait enpresa batek amortizatuko du eta horrek ere hausnarketa bat eskatzen du, hau da, guk etorkizun batean, egia da, gaur egun ez daukagu ezta autobusa gordetzeko lekurik ere. Orduan, gaur-gaurkoz ezinezkoa litzateke edo zaila litzateke guk geure autobus propioa izatea, baina etorkizun batean uste dut norabide horretan joan behar dugula, esan ditudan kezka eta ohar guztiekin. Hala ere, esan dudan bezala, zerbitzua hobetu egiten da, auzo gehiagotara iristen da, eta guk aldeko bozka emango diogu.”

Jarraian, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak hartu du hitza, honakoa esateko:



Andoaino Udala

Akta:Osoko Udalbatza

APARTEKO BILKURA: 2023/05/19

Acta: Pleno Municipal

SESIÓN EXTRAORDINARIA: 19/05/2023

“Nuestro grupo vamos a votar en contra por lo que ya expuse en la comisión.

“Nosotros pensamos y creemos en un modelo de gestión totalmente diferente. Pensamos que 10 años es mucho de cara a una posible publicación del servicio, y que no nos da margen. A lo mejor tendríamos que haberlo pensado antes, y es un planteamiento en el que ya vemos que hay que hacerlo ya, sí o sí, pero nos estamos dando cuenta de que hay muchas cosas que se subcontratan. Para nosotros es muy importante que los servicios sean públicos, que los gestione el Ayuntamiento, y a lo mejor lo que tendríamos que hacer, para nosotros es indudable que es así. Sería un modelo de gestión de los servicios públicos en el que el propio ayuntamiento, hubiera un departamento que se gestionarían todos, porque nos está pasando así con muchas cosas.

“Dices que esto debería ser público y te dicen buff, es que esto es un marrón. A ver ahora cómo se hace. Esto no es un marrón. Esto es un servicio público que se tiene que gestionar desde lo público, desde la institución. Entonces, lo que pensamos que ya venimos denunciando desde el principio de la legislatura es que creemos que a lo mejor la organización de este ayuntamiento no es buena, y entonces se van viendo las carencias según van surgiendo. Nuestro modelo es un modelo de gestión pública en el que, no cabe duda, tendría que haber un departamento que gestionará todos los servicios públicos.

“Entonces, nosotros estamos de acuerdo con el fondo. Pensamos que es un servicio que indudablemente se mejora, hay más recorridos, el autobús tiene unas características totalmente diferentes, pero vemos que al final terminamos pagando el autobús el ayuntamiento. Y el beneficio empresarial, por supuesto, va a una fábrica, y ese beneficio empresarial, a nuestro entender, tendría que revertir en los servicios públicos. Tendríamos que mejorar, si no es éste, otros.

“Nosotros creemos en un modelo totalmente diferente de gestión. Y entonces todas estas subcontratas, pues no dan margen. No dan margen, porque si esto hubiera sido un contrato a menos años, puedes hacerte un planteamiento en estos años, pero a nosotros 10 años nos parece mucho, nos parece un largo plazo en el que ya no va a caber un planteamiento, porque ya se han dado los 10 años de margen y ya se ha amortizado el autobús, que es de una empresa, no es del ayuntamiento.

“Cuando éste autobús podía ser municipal, y cuando ya se haya acabará la amortización, pues, a lo mejor tendría unos años más de vida, que sería más beneficio incluso para el ayuntamiento. Entonces, sabemos que con nuestro voto no se cuestiona el que el servicio se va a dar, pero si queremos hacer una reflexión y una reflexión contundente en cuanto a todos los servicios en general, entonces, nosotros queremos mostrar aquí lo que pensamos que tiene que ser una gestión pública, y, por lo tanto, por eso vamos a votar en contra, estando de acuerdo en todas las ampliaciones que ha habido compartiendo, lo de que a lo mejor hay que hacer unos avisos o hay que hacer unas pantallas en las que avisas. O sea, eso ya sería otra historia, pero en el fondo estamos de acuerdo, ¿todo el pliego? ¿Estamos de acuerdo? ¿o no estamos de acuerdo en los 10 años, que se ve que son obligatorios, precisamente para que la empresa puede amortizar el autobús?. A nosotros eso nos rompe totalmente el esquema, porque el autobús y lo amortizados, tendría que ser cuando menos nuestro. Entonces, ese va a ser nuestro voto, y ese es el motivo.”

Jarraian, Verdasco jaunak, PSE-EE udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Egun on guztioi. Las y los socialistas consideramos que la nueva configuración de horarios y rutas del autobús urbano tiene por objetivo ofrecen un servicio que atienda mejor las necesidades de la ciudadanía de Andoain.

“Incorpora, por ejemplo, el incremento de líneas, mejora la frecuencia de horarios, la mayor frecuencia de viajes al cementerio, un autobús que aporte, que tienen un mayor tamaño, con mayor número de plazas y más accesible.

“La nueva configuración del servicio la valoramos positiva, y vemos también muy oportuno que el pliego recoja la posibilidad de que se puedan introducir cambios en función de las



necesidades de los usuarios.

“Por otro lado, también, indicar que los socialistas somos partidarios de la incorporación del hiri bus al sistema de Mugi, cuestión que queda recogida en los pliegos por las ventajas que supondría tanto para el servicio como para los usuarios.

“Y esperamos que sea una cuestión en la que en los próximos meses se debería abordar.”

Berririo hartzen du hitza Izagirre andreak, honako esateko:

“Bueno, bakarrik komentatzea Mugi txartela erabili ahal izateko, hiribusarekin. Horri ez diogula bide askorik eman gaur egun, ze gaur egun ditugun hiri bus tarifak oso-oso baxuak dira. Jubilatuentzako, zero koma hogeit zentimo, herritar guztientzako zero koma, hirurogei xentimo, eta zero eta hiru urte bitarteko umetxo behintzat dohainik da.

“Eta Mugi txartelaren txertaketa hori ekarriko luke zuzenean, prezioa handitzea. Horregatik ikusten dugu eta ulertzen dugu ez dela momentua, ez dela garaia etxe askotan, batzordean komentatu, esan bezala, etxe askotan arazo asko daude gaur egun eta ez dugu ikusten momentua, baina etorkizun batean, akaso horrela amaitu beharko da, baina gaur egun ez dugu ikusten egokia denik, ez eta momentua ere.”

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate andreak, proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV eta EH Bildu udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta Elkarrekin Podemos udal taldeko zinegotziaren kontrako botoekin, honakoa erabaki du:

1. Bidaiarien hiri garraioa zerbitzua emateko zerbitzu-emakidako kontratuaren esleipenak eragindako gastua onartzea, 172.787,48 € lizitazio prezioan (157.079,48 € gehi 15.708 € BEZari dagozkionak), Udal Aurrekontuetako 2023ko ekitaldiko 1. 0200.227.441.10.08 2023 (223) kontu-sailaren kargura.
2. Bidaiarien hiri garraioa zerbitzua emateko zerbitzu-emakidako kontratuaren esleipena arautuko duen baldintza administratibo berezien agiria eta baldintza teknikoaren agiria onartzea.
3. Aipatutako zerbitzua esleitzeko irekitako kontratazio espediente administratiboa onartzea eta prozedura abiaraztea, jardunbide ireki bitartez, izapidetzea ohikoa izanik.
4. Erabaki hau Kontratazailearen Profilean argitaratzea, azaroaren 8ko 9/2017 Sektorre Publikoko Kontratuaren Legearen 135.1 artikuluan xedatutakoari jarraiki.
5. Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitza lansailari.

2. 4/2023 zk.ko kreditu aldaketa espedientea onartzea.

“Kreditu gehigarrien (Sarekon 2023-KALD-000005-00) bidezko kreditu aldaketaren 2023/04 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena”.

Besteak beste, kontuan izanda:

- Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak 2023.05.08an aho batez emandako aldeko proposamena (Otietako tunela)

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Kontu hartzaileak egindako txostenak ikusi dira. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Ekonomia eta Ogasuna Batzorde Informatzaileak 2023/05/16ko bileran emandako aldeko irizpena.

Izagirre andreak, zerbitzuetako zinegotzi delegatuak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, batzordean komentatu zen bezala, kreditu-modifikazio hau presazkoa, presazko bezala hartu dugu, ze dakizuen bezala, Otietako tunela erori egin zen, eroritako horren konponketa egitera sartu direnean ikusi dute beste hogeita bost, hogeita hamar metro inguru Leitza aldera erortzeaz daudela, pitzadura handia dagoela eta erabiltzaileen eta bertatik pasatzen diren guztien segurtasuna ezin dela



Andoaingo Udala

Akta:Osoko Udalbatza
APARTEKO BILKURA: 2023/05/19

Acta: Pleno Municipal
SESIÓN EXTRAORDINARIA: 19/05/2023

bermatu. Orduan, egokiagoa ikusi dugu tunela itxita mantentzea gaur egun guztion segurtasunagatik, eta kreditu-modifikazio hau presazko bezala ekarri dugu lehenbailehen tunel horren konponketa aurrera eraman ahal izateko.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
6	INBERTSIO ERREALAK	220.000,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		220.000,00

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	220.000,00
GUZTIRA		220.000,00

Bigarrena.- Jendaurrian ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

Alkate andreak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Eta ezohiko udalbatzarra denez, amaitutzat emango genuke gaueko saioa. Eskerrak gurekin izateagatik.

“Como es un pleno extraordinario, no hay ruegos y preguntas, con lo cual damos por finalizado el pleno de hoy.”

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia, 14:30 minutu zirenean. Behin-behineko idazkariak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritz Toki Erakundearen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, Behin-behineko idazkaria naizen honek, ematen dut.

O.E.
Alkatea

Behin-behineko idazkaria



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU29cbb7a5-f3fb-48cb-ad77-c29fba578bf6**

Dokumentu elektronikoen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910>